

Prensa Oharra

26 haur eta gazte sarituko dituzte aurtengo 33. Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketan

Sari banaketa maiatzaren 28an, 12:00etan, Udaletxean egingo da

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketako 2022ko irabazleak saritzeko ekitaldia antolatuko du maiatzaren 28an, 12:00etan, Udaletxeko Udalbatza aretoan.

Urtero bezala, saridunak izango dira protagonista nagusiak. Dorleta Urretabizkaiak aurkezpen lanak egingo ditu; Iñaki Salvadorrek eta Ainara Ortegak musika dotorez apainduko dute ekitaldia, eta epaimahaiko kideak ere bertan izango dira lanak irakurtzen, erakusten eta kantatzen laguntzeko. Eneko Goia alkatea ere bertan izango da aurtengo saridunak eta aipatuak zoriontzeko.

1.385 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan

Koldo Mitxelena Literatur Lehiaketaren 33. edizioan 26 lan saritu dira eta 34 lanek jaso dute aipamen berezia. Parte hartzeari dagokionez, arrakastatsua izan da oso, 1.385 lan aurkeztu baitira aurrean, pandemiako urteetan izan den igoerari eutsiz.

33. edizioan saritutako lanak (6 komiki, webkomiki 1, 4 olerki, 7 ipuin, 4 bertso eta 4 mikroipuin) liburuxka batean bildu dira eta www.donostiaeuskaraz.eus-en ikus daitezke. Bertan, epaimahaiaren (Iñaki Martinarena "Mattin" komikigilea, Beñat Gaztelumendi bertsolaria eta Yolanda Arrieta, Ana Malagon, Inazio Mujika eta Arantxa Urretabizkaia idazleak) aipamen berezia merezi izan duten lanen zerrenda ere argitaratu da; 34 lan, hain zuzen ere.

Aurtengo edizioan, bestalde, 23 ikastetxetako ikasleek parte hartu dute.

Opariak eta literatura lantegi batean parte hartzeko aukera

Aurrean ere, 14-18 urteko kategorietako irabazleek literatura lantegi batean parte hartzeko aukera izango dute. Kategoria honetako bost irabazleek Arantzan antolatuko den lantegian parte hartu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren Urruzuno Literatura Lehiaketako irabazleekin batera. Jon Insausti Kulturako eta Euskarako zinegotzi ordezkariaren esanetan *"lantegi horretan literatur zaletasuna duten gazteek elkar ezagutzeko aukera izango dute eta egun zoragarriak igaroko dituzte. Aukera ezin hobea izango dute aisialdiaz eta literaturaz gozatzeko"*.

Bestalde, irabazle guztiek kulturarekin zerikusia duten produktuak jasoko dituzte: 50 euroko bonoak kultur produktuak erosteko, ebookak, margotzeko tabletak edota materiala eta abar.

Jon Insaustik gaineratu du Koldo Mitxelena literatura lehiaketak arrakastatsua izaten jarraitzen duela, *"benetan poztekoa da hain ibilbide luzeko lehiaketak duen harrera haur eta gazteen artean. Ikus-entzunezkoen, sare sozialen eta plataforma digitalen aroan irakurzaletasunak eta literaturak lekua izaten jarraitzea garrantzitsua da"*.



Prensa Oharra

Sarituen zerrenda

Mota	K	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
Bertsoa	B	OSAMBELA PERURENA,UDANE	ZENTZUMENEN BERTSOA	Ibai Ikastola
Bertsoa	C	POSTIGO ALZUGARAI,JURGI	ESPAZIOA	Herri Ametsa
Bertsoa	D	LEGORBURU ARRIETA,LEXURI	MIGRANTEEN URRATSETAN	Arantzazuko Ama BHI
Bertsoa	F	CINCUNEGUI MAYORA,GORKA	AITTONA ETA AMONA	San Inazio Ikastetxea
Ipuina	B	LARRETA DORRONSORO,GORKA	ALTXOR MISTERIOTSUA	Santo Tomas Lizeoa
Ipuina	B	GOICOECHEA CHUECA,MARTINA	ILUNABAR LAMIA	Axular Lizeoa
Ipuina	B	LERTXUNDI IZAGIRRE,LAIA	HOR KONPON MARIANTON	Santo Tomas Lizeoa
Ipuina	C	ODRIOZOLA ECHANIZ,IÑAKI	KLIK ETA AGUR	Orixe Ikastola
Ipuina	D	AZKARATE ANABITARTE,IRAIA	DAMUAREN OHIARTZUNA	Antigua-Luberri BHI
Ipuina	E	VIDAL ARRIETA,NEREA	IBAIAREN KOLOREA	Axular Lizeoa
Ipuina	F	MAIZA VIEITES,ALICIA	NORANZKORIK GABE	San Inazio
Komikia	B	SANZ BERLOSO,UXUE	IKASTOLAKO TXANTXAK	Ibai Ikastola
Komikia	B	ASTIGARRAGA VITORIA,MALEN	3,2,1... ESPAZIORA	Zurriola Ikastola
Komikia	C	CRESPO AIZKORRETA,HIART	EURI-KOSMIKOA	Herri Ametsa
Komikia	D	DELGADO PEREZ,BELEN	EZBERDINTASUNAREN HARROTASUN EZBERDINA	Mundaiz Ikastetxea
Komikia	E	ALVAREZ ALVAREZ,XABAT	ILUN	La Salle-San Luis
Komikia	F	GOMEZ DE SEGURA LARRAÑAGA,OIHANA	GOGORATZEKO EGUN BAT	San Inazio Ikastetxea
Mikroip.	D	REZABAL AGIRREGOMEZKORTA,MADDI	UDABERRIAREN GARAIA	Arantzazuko Ama BHI
Mikroip.	D	OLVEIRA RODRIGO,IRATI	NOLAKOA ZARA?	Arantzazuko Ama BHI
Mikroip.	E	APEZTEGUIA GOMEZ,RUTH	EGONEZINAK AKABATU	Lauazeta Ikastola BHI
Mikroip.	F	ARESTI PEREZ,OIER	HIZKIRIMIRI	Zubiri-Manteo BHI
Olerkia	C	ARRAZOLA ETXEZARRETA,MADDI	ZER OTE DA ?	Zurriola Ikastola
Olerkia	D	HERNANDEZ ALVAREZ,IERA	BUELTATU	Zurriola Ikastola
Olerkia	F	ITURRIOZ REZOLA,MAITANE	AKABO	Santo Tomas Lizeoa